



Lanaren nondik norakoak:

- Testuaren luzera 150 eta 250 hitz artean egongo da.
- Testuak lau atal izan behar ditu, paragrafotan banatuta:
 - Informazio orokorra: naturagunearen izena, deskribapen geografikoa, kokapena, mendiak, ibaiak, udalerriak...
 - Azalera. Datua eman eta ezaguna zaizuen beste eremu bateko azalerarekin konparatu (eskolarena, beste parke batena edo zuen udalerriarena izan daiteke, adibidez). Halako zenbat sartzen dira parke naturalean?
 - Geologiaren deskribapen laburra. Zer arroka mota daude? Zer adinekoak dira?
 - Bioaniztasunaren deskribapen laburra. Zer landaretza edo fauna da bereizgarriena bertan? Ba al dago bereziki babestuta dagoen espezierik? Eta espezie inbaditzaileak?
- Ziurtatu idatzitako hitz guztiak ulertzen dituzuela. Horretarako, hitz ezezagunak bilatu Interneten, eta, hala ere, ez baduzue zerbait ulertzen, galdetu irakasleari.
- Testuaren ondoren, ondorengoa azaldu behar da dokumentuan:
 - Azalerari buruzko kalkuluak idatzi eta arrazoitu. Alderaketa hori ulertzeko irudiren bat sortu bada, irudia txertatu.
 - Ezezagunak ziren hitzen zerrenda eta hitz bakoitzaren azalpen ulergarria aldamenean.
 - Azkenik, informazioa eskuratzeko erabili dituzuen web-orri guztien helbideak idatzi.
- Osatu testua taldean eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testua eta audioa grabatu. Gorde bi fitxategiak zuen portfolio digitalean.